

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Hezkuntza departamentuak eta Sesmako Udalak 0-3 eskola egungo legedira egokitzeko konpromiso protokoloa sinatu dute

*Maria Solana hezkuntza kontseilariak eta Pedro Mangado Sesmako alkateak sinatu dute protokoloa, Udalak jolas-gelara arranpa egiteko*

Asteartea, 2018.eko otsailak 27

Nafarroan udalen ardurapean diren 0-3 urteko 93 zentroetatik, gaur egun, seik jarraitzen dute 2007ko Foru Dekretuak jasotzen dituen ezaugarrietara egokitu gabe, tartean, Sesmakoak. Gaur sinatutako protokoloarekin, Sesmako udalak konpromiso politikoa hartu du egin beharreko lanak 2018an gauzatzeko, 28/2007ko Foru Dekretura egokitzeko eta era horretan 0-3ko zentroak Hezkuntza departamentuaren haur eskolen eroldara gehitzeko.



Maria Solana, Hezkuntza kontseilaria, eta Pedro Mangado, Sesmako alkatea 0-3 urte bitarteko ikastetxean akordioa sinatu ostean.

Hezkuntza kontseilariak eskertu egin dio alkarteari hartutako konpromisoa, Nafarroako haur eskola guztien arautzean aurrera egiteko beste urrats bat baita. Alkateak, bestalde, haur eskolak duen garrantzia azpimarratu du, ikasle guztien inklusioan duen balioagatik, herriko gizarte kohesioan eta elkarbizitzan giltzarri.

Haur eskola egokitzeko lanak 2018an hasiko dira eta behin amaituta Hezkuntza departamentuaren 0-3 haur eskolen eroldara gehitu da Sesmakoak. Era berean protokoloak bide ematen dio Sesmako Udalarri Hezkuntza departamentuaren diru-laguntzak jasotzen jarraitzeko. Izan ere, Foru Dekretura egokitu ezean ezinezkoa da era horretako finantzazioa jasotzea.

Gaur sinatutako protokoloari esker, Sesmako Udalak egin beharreko lanen egutegia zehaztuko du. Jolas-gelara arranpa egingo du Udalak Haur eskolan eta Departamentuko Azpiegitura Zuzendaritzak ikuskatuko ditu lanak.